



HELDUEN EUSKALDUNTZE ALFABETATZEAREN HISTORIA GAUR EGUNGO ARGAZKIA ETA ETORKIZUNA

Mertxe Mugika

AEKren koordinatzaile nagusia

Helbide elektronikoa: mertxe@aeknet.net

ALFABETATZE BATZORDEA: LEHEN SAIOA

Helduen euskara eta alfabetatze irakaskuntzari dagokion historiaz idazten hasten garenean ezin dugu aipatu gabe utzi Alfabetatze Batzordea, izan ere hori izan baitzen lehen saio antolatua.

Alfabetatze Batzordearen sorrera instituzio bati lotuta agertu zen; Euskaltzaindiari hain zuzen ere, erakunde honek bultzatuta jaio baitzen. Batzorde honi alfabetatze kanpainak bultzatzea zegokion.

Alfabetatze Batzordearen sorrera bere osotasunean ulertzeko, Euskal Herriko orduko politika eta gizarte egoerari buruz aipamen bat egin beharra dago eta uste dut merezi duela batzordearen sorreraren inguruan, sortzaile nagusienetako batek, Rikardo Arregik, euskal gizartearen eta politikaren egoeraz egindako azterketa aipatzea. 60ko hamarkadaren azken urteak dira:

“1960 urte inguruan azaltzen da euskal arazoetarako belaun berri bat. Urte hori ezkeroztik, behar bada, pixka bat lehentxoagotik euskal adimena eta euskal sentipena berritu egiten da, bere baitan zartada bat sentitzen du eta ordu ezkeroztik gertaera hau belaun berri baten esnatzea, kontuan hartu gabe ez dago

aztertzerik ez euskal kultura, ez euskal politika, ezta ere euskaldunen artean dabilzan ideologiak. Hau da azken urteotako gertakarik bortitzena. Gure histori gertuaren azalpenik ikusgarriena”.

Beraz, belaunaldi berriak eragindako euskal adimenaren eta sentimenduaren berritze prozesu horretan kokatu behar da Alfabetatze Batzordearen sorrera. Alfabetatze Batzordearen zeregina, bestalde, alfabetatze kanpainak antolatzea zen, euskaldunak beren hizkuntzan alfabetatze bitartekoak ipintzea, alegia. Talde honen aburuz, idazten edota irakurtzen ikasteaz gain, beharrezkoa zen euskal kultura euskaraz eskuratzea.

Alfabetatzeari ekiteaz gain, Batzorde honek helduak euskalduntzeari ere ekin zion eta urteak aurrera joan ahala, bigarren arlo honek, ikasle kopuruari dagokionez, lehena nabarmen gainditu zuen.

Lehenengo zati honi bukaera emateko, ezin aipatu gabe utzi Alfabetatze Batzorde honek bere ibilbidean euskararen irakaskuntzan arlo pedagogikoan egindako ekarpena; hor daude besteak beste “Lehen urratsak” liburuxka, “Euskalduntzen” metodoa eta Eusebio Osaren “Pedagogia eta Gizartea”.

AEK SORRERA

1970eko hamarkadan, helduen euskalduntze alfabetatzeak ikasle hazkunde nabarmena ezagutu zuen.

Ikasle uholdeak dimentsio berria eman zion helduen irakaskuntzari. Eskola eskaintzak demanda berriari erantzun behar zion; irakasle eta ikasgela gehiago behar ziren. Hasten ari zen dimentsio honek, ordura arte zeregin horretan arituak ziren taldeen esturturen ahalmena gainditu zuen, demanda berri horri nekez erantzungo zion era egokian ordura arteko helduen euskara irakaskuntza sakabanatuak. Batasun maila bat atxiki beharra zegoen, eta ikuspegi berriak ere beharrezkoak ziren; nazio ikuspegia, herri mugimendu izaera, koordinazio beharra... Ikuspegi berri hauek bere egiturari, bere antolaketari eta bere izaerari bilduko zituen erakunde berri baten beharra aurreikusten zuten.

Pedro Mari Legarretak 1977ko JAKIN aldizkariaren 4. zenbakian proposatutako nomenklatura, arestian aipatutakoaren adierazgarri bitxia da, egoera berria eskatzen baitzuen; AEK aipatzen duelarik:

“ Izenari buruz bi hitz. Nik Alfabetatze Euskalduntze Mugimendua deitzen diot. Herri mugimendua delako. Mugimendua koordinaturik dago eta koordinakunde hau batzorde batzuen bidez lortzen da. Hala ere, erabili dira beste izen batzuk. Gipuzkoa eta Nafarroan haren eraginez Gau Eskolak, Bizkaian Alfabetatze Kanpainak, Alfabetatze Euskalduntze Kanpainak...Orain arte beste batzuk entzuten dira; Euskal Eskolak, Euskaltegiak.

Demanda berri horri nekez erantzungo zion era egokian ordura arteko helduen euskara irakaskuntza sakabanatuak. Batasun maila bat atxiki beharra zegoen, eta ikuspegi berriak ere beharrezkoak ziren; nazio ikuspegia, herri mugimendu izaera, koordinazio beharra... Ikuspegi berri hauek bere egiturari, bere antolaketari eta bere izaerari bilduko zituen erakunde berri baten beharra aurreikusten zuten.

Ikusten denez, izen proposamen hutsa baino, definizioa ere bada: batzordeen bidez koordinatutako herri mugimendua eta bere lana euskaltegi edo euskal eskoletan burutzen duena. AEKren sorrerak ez zuen aurretiaz aritzen ziren taldeen lanaren haustura ekarri, baizik eta egoera berri baten aurrean lanean jarraitzeko hauspoa.

- Terminologia bat proposatzekotan honela egingo nuke:
- Alfabetatze Euskalduntze Mugimendua
- Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea
- Alfabetatze Euskalduntze Batzordeak
- Euskaltegi edo Euskal Eskola, tokia adierazteko.”

Ikusten denez, izen proposamen hutsa baino, definizioa ere bada: batzordeen bidez koordinatutako herri mugimendua eta bere lana euskaltegi edo euskal eskoletan burutzen duena. AEKren sorrerak ez zuen aurretiaz aritzen ziren taldeen lanaren haustura ekarri, baizik eta egoera berri baten aurrean lanean jarraitzeko hauspoa.

HELDUEN EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA; GAUR EGUNGO ARGAZKIA

Liskarrak, tirabirak, kristorenak eta bi pasa eta gero, 2007ko martxoan gaude eta argi eta garbi esan behar dugu HEA sektore indartsua dela, bere historiari uko egin barik, erronkei aurre egiten jakin izan duena eta egoerarik txarrean ere aurrera egiten jakin duena.

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza izateaz gain, EAEko hizkuntza ofiziala¹ da. Administrazio publikoei dagokie, beraz, eskubide hau, beste eskubide guztiak bezala, bermatzea, gizaratean euskararen eza-gutza eta erabilera areagotuz.

Eginkizun honetan, Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzeak berebiziko garrantzia izan du eta izango du euskararen biziraupenean. Euskaltegiok 1970eko hamarkadan hasitako bidean euskararen ezagutza nahiz erabilera, euskaldunon hizkuntz gaitasuna hobetzea, euskara ikasi eta erabiltzearen aldeko motibazioa izan ditugu jomuga. Honela aitortzen du Eusko Jaurlaritzak berak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian, lehentasuneko sektore estrategikoa garelako berretsiz.²

Sarri askotan gertatzen zaigu langintza honetan ari garenoi edozein lekura joan eta zenbat langile garen, zenbat ikasle ditugun, zenbat eta nolako egoitzetan ari garen eta horrelako hamaika galdera erantzun behar izatea: izan ere, gure ikasguneetatik milaka eta milaka ikasle pasatu badira ere, ezjakintasun handia dago gure jardueraren inguruan. Goazen bada, une honetako argazkia erakustera:

Gure eginkizun nagusia helduen euskalduntze eta alfabetatzea da. Orotara, 64 euskaltegi homologatu ari gara lanean EAEn, baina gure eragin esparrua ehunka herri eta auzotara heltzen da. 1.000tik gora irakaslek osatzen dugu Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzearen Sektorea, guztiak HABEk homologatuak. Euskara irakasleok, EGA titulua edo baliokideren bat eta lizentziatura edo diplomatura ikasketak ditugu, edota HABEk antolaturiko Diplomatura edo Habilitazioaren bidezko homologazioa.

Gure euskaltegieta 30.000 ikasle inguru hurbildu dira 2005-2006 ikasturtean. Ikasle horiek ordaintzen dituzten matrikulak gure diru iturri nagusietako bat dira, Eusko Jaurlaritzatik jasotzen ditugun dirulaguntzeekin batera. Orotara, urtean 31.000.000 € gutxi gorabehera.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzea, euskaltegien eginkizun nagusia izateaz gain, gure hizkuntz ofizialaren normalizazio prozesuan euskaltegiok gizaritari eskaintzen diogun zerbitzua da. Eusko Jaurlaritzaren “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak”, hezkuntza sistemarekin batera, helduen euskalduntze eta alfabetatzea baliatzen du euskararen geroratzea bermatzearen. Orobat, Eusko Jaurlaritzak indarrean dituen administrazioeko langileen Euskalduntze Planak bideratzeko ezinbesteko zerbitzua betetzen dugu euskaltegiok.

Horretaz gain, euskaltegien jarduera-eremuak beste arlo bat jorratzen du helduen euskalduntze eta alfabetatzean, irakaskuntzarekin zuzenean loturik dagoena: euskararen erabilera. Ildo horretan, euskaltegiak euskalgintzaren eragile dira, euskalduntze eta alfabetatze hutsean bezala hari dagokion sustapen lanean. Horrez gain, euskaltegiek badute beste berezitasun bat, alegia, azpiegitura egokiak eta behar den beste gizabaliabide, erabilera sustatzeko lanean jarduteko.

Hortaz, orain arte azaldutako testuinguru horretan ulertu behar da gure lana: euskararen normalizazio prozesuan gizaritari eskaintzen diogun zerbitzu bezala.

Era berean, gure jarduna araututa dago. Lehenik eta behin, Kultura Sailaren Dekretuak euskaltegi homologatuok bete behar ditugun baldintzak zehazten ditu: irakasleen kualifikazioa, azpiegituraren baldintzak, ikasle kopuruak eta abar. Jarduera akademikoari dagokionez, HABEK osaturiko “Helduen Euskalduntzerako Oinarritzko curriculum” ezinbesteko oinarritzat hartuta, euskaltegi guztiok garatu dugu gure Curriculum Proiektua.

Bertan zehaztu ditugu gure irizpide metodologikoak, gure programazioak, ebaluaziorako irizpideak eta abar. Aurrekoez gain, 2005eko uztailaren 27ko ebazpenak ikastaro eta modulu homologatuak arautzen ditu.

HELDUEN EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA ETORKIZUNARI BEGIRA

Behin gaur egungo argazkia erakutsi ondoren, HEA alfabetatzea indartsu dagoela esan daiteke inolako zalantza barik. Baina baikortasunak ez gaitu itsutu behar, aurrera begira jarri behar gara, orain arte ondo egindakoetatik ikasi eta hobetu behar direnak hobekuntza bidean jarriz. Goazen, bada, etorkizunari begira gure erronkak zeintzuk diren aipatzera.

Gure eginkizun nagusia helduen euskalduntze eta alfabetatzea da. Orotara, 64 euskaltegi homologatu ari gara lanean EAEn, baina gure eragin esparrua ehunka herri eta auzotara heltzen da. 1.000tik gora irakasleak osatzen dugu Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzearen Sektorea, guztiak HABEK homologatuak. Euskara irakasleok, EGA titulua edo baliokideren bat eta lizentziatura edo diplomatura ikasketak ditugu, edota HABEK antolaturiko Diplomatura edo Habilitazioaren bidezko homologazioa.

Euskara ikasi dutenen kopuruak nabarmen egin du gora; erabilera, ordea, ez da nahi bestekoa. Beraz, argi dago oraindik ere lan handia dugula egiteko, euskarak aurrera egingo badu ezinbestekoa da urratsak ematea erabileran. Ikasle heldu batek euskara ikasten egiten duen esfortzua oso handia da, gero erabilera ezagatik ikasi duen hori galtzen badu, eta handik eta urte batzuetara euskaltegira hurbildu behar badu.

1. EUSKARAREN ERABILERA

Azken 30 urteotan euskararen egoera asko aldatu da. Euskara ikasi dutenen kopuruak nabarmen egin du gora; erabilera, ordea, ez da nahi bestekoa. Beraz, argi dago oraindik ere lan handia dugula egiteko, euskarak aurrera egingo badu ezinbestekoa da urratsak ematea erabileran. Ikasle heldu batek euskara ikasten egiten duen esfortzua oso handia da, gero erabilera ezagatik ikasi duen hori galtzen badu, eta handik eta urte batzuetara euskaltegira hurbildu behar badu.

Eginkizun hau ez dagokigu bakarrik euskaltegioi, baina gure arlo honetan, ezin diogu muzin egin gure erantzukizunari. Guregana hurbiltzen den ikasleari ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen jauzian laguntza eman behar diogu gure esku dagoen guztia eginez. Gabezia horretaz konturatuta abian jarri ziren aspaldian Berbalagun edo Mintzalagun izenekin ezagunak diren egitasmoak. Hiru dira egitasmo hauen eginkizun nagusiak:

1. Ikaslearen hizkuntzaren erabilpena areagotu.
2. Ikaslearen hizkuntza kontrastea areagotu, hizkuntza eredu ezberdinak ezagutuz eta landuz.
3. Hizkuntza naturalaren komunitatean ikaslearen integrazioa erraztu.

Arestian esan bezala, erabilera areagotzea ez da bakarrik euskaltegion zeregina. Gizarte osoaren inplikazioa beharrezkoa da; irakaskuntzako eragileak, lan munduko eragileak, zein gizarte eragileak administrazioekin elkarlanean landu behar dugu hainbeste kezkatzen gaituen erabileraren arloa. Dena dela, lagungarri izango delakoan, hona hemen arlo bakoitzean abian jarri behar diren zenbait ekinbide:

Euskaltegietan:

Euskaltegiaren estrategiak —baita estrategia didaktikoak berak ere— kontuan hartu behar du inguru soziolinguistikoa. Euskaltegi bakoitzak bere estrategia egokitu behar du inguruko beharrei ahalik eta egokien erantzuteko, alegia, ikaslea eta hizkuntza, hizkuntza komunitatea, baldintza egokietan harremanetan jartzeko. Ikasleei euskara erabiltzeko aukerak erraztea ere euskaltegiaren funtzioa da; arestian aipatutako egitasmoak bide egokiak izan daitezke ikaslea euskaldunei era ez-traumatikoan hurbiltzeko. Horri guztiari erantzuteko nahian, AEK-k Praktika Jarrauerak izeneko zerbitzua eskaintzen du, euskaltegietan zubi-lana beteko dituzten programak landuz eta bultzatuz: asteburuetako barnetegiak, transmisio barnetegiak, berbalagun edo mintzalagun programak...

Bestalde, xede berezietako taldeak abian jartzeko ahaleginak egin egiten ditugu, esaterako merkatariak, finantza munduko langileak, osa-

sun arloko langileak edo etorkinak. Talde hauek askotan metodologia, material eta ahalegin bereziak eskatzen dituzte. Horiek horrela, talde hauek ondokoak beharko lituzkete:

- Ikastalde hauek sustatu, Administrazio Orokorreko, Diputazioetako, eta Toki Administrazioetako hizkuntza politikak uztartuz eta osagarritasun printzipioa aplikatuz.
- Ikastaldeak sortzeko eta ikastaroak bideratzeko modulu eta eskakizun bereziak: modulu akademikoa, ratioa, eskola ordu kopurua,...
- Finantziatorako dirulaguntza sistema berezia ezarri.
- Berariazko material didaktikoa sortu.

Irakaskuntzan:

- Ikastetxeetarako erabilera planak garatzeko laguntzak eskaini.
- Familia misto eta erdalduna euskalduntzeko laguntza bereziak bideratu.
- Berariazko ikastaroak eskaini: helburu, programazio eta modulu akademiko bereziak eskaini.
- Haur eta gazteekin aritzen diren hezitzaile erdaldunak euskalduntzeko ekimenak garatu; hezitzaileak euskaldunak izanez gero, trebatzeko eta haien euskara maila egokitzeko bideak jorratu.

Lan munduan:

- Erabilera planak bideratzeko aholkularitza eta baliabide ekonomikoak eskaini.
- Lan munduan euskara erabil dezaten laguntzeko trebatzaileak jarri.
- Normalizazio planak abiatzen dituzten enpresentzako pizgarriak eskaini.
- Bezeroekin aurrez aurre lanean ari diren lanpostuak euskalduntzeko erraztasunak eman (emaitzei lotutako liberazioen finantziazioa).
- Langileentzako prestakuntza ikastaroak euskaraz eskaini.

Administrazioan eta enpresa publikoetan:

- Lanean euskararen erabilera ahalbideratuko duten programak abian jarri.
- Hizkuntz eskakizunak areagotzeko proposamenak egin. Ezarritako epeak bete, eta aldagai berrietara egokitu.

*Euskaltegiaren
estrategiak –baita
estrategia didaktikoak
berak ere– kontuan hartu
behar du inguru
soziolinguistikoa.
Euskaltegi bakoitzak bere
estrategia egokitu behar
du inguruko beharrei
ahalik eta egokien
erantzuteko, alegia,
ikaslea eta hizkuntza,
hizkuntza komunitatea,
baldintza egokietan
harremanetan jartzeko.
Ikasleei euskara
erabiltzeko aukerak
erraztea ere
euskaltegiaren funtzioa
da.*

Euskara abantaila bezala hartu behar da. Tokian tokiko administrazioetan zeharkako gaia izan behar du. Dirulaguntzak nahiz kontratazioak esleitzen direnean, euskara baloratu egin behar da. Administrazioek euskara lehenetsi egin behar dute hainbat kasutan. Helduen euskalduntze eta alfabetatzeari dagokionez, euskalduntze eta alfabetatzea suspertu eta prestigiatzeko kanpaina koordinatuak bultzatu behar dira.

2. SUSTAPENA

Euskarari prestigioa eman behar zaio; euskararen beharra gizarteratu egin behar da. Hizkuntza eta kultura-aniztasuna balio nagusizat harturik, euskararen aldeko sentiberatze-ekintzak antolatu behar dira. Hau guztia bideratzeko ez da nahikoa egun bateko kanpainak antolatzea, Euskarak sustapen kanpaina iraunkorrek garatu behar ditu. D ereduko matrikulazio kanpainak nabarmen gora egin badu, etengabeko sustapena egin zaiolako izan da.

Euskara abantaila bezala hartu behar da. Tokian tokiko administrazioetan zeharkako gaia izan behar du. Dirulaguntzak nahiz kontratazioak esleitzen direnean, euskara baloratu egin behar da. Administrazioek euskara lehenetsi egin behar dute hainbat kasutan.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeari dagokionez, euskalduntze eta alfabetatzea suspertu eta prestigiatzeko kanpaina koordinatuak bultzatu behar dira eta horretarako hona hemen zenbait proposamen:

- HEAn diharduen lan-taldearen profesionaltasuna goraiatu eta euskaltegiek urte hauetan egindako lana eskertu kanpaina publikoen bidez.
- Ikasle berriak erakarri. Euskaraz ezer ez dakien jende ugari dago oraindik, eta prestakuntzaren eraginkortasuna bermatuz, eskaintza bereziak eta helburu mugatueterako ikastaroak prestatu beharko dira.
- Euskararen dibulgazio kanpainak sustatuz, hiztun hartzaile izatera animatu —elkarrizketa erraz bati erantzuteko gai izatea, nahiz eta aurrera jo ahala “barkatu, erdaraz mesedez, ikasten ari naiz” esan behar—. Kanpaina hauek komunikabide publiko guztietan (eta, ahal den neurrian, pribatuetan) egingo lirateke helburu bikoitzarekin: bata, euskaraz zuzentzen bazaizkizu, beldurra galtzea; bestea, euskara ikastea guztiz lorgarria dela aldarrikatzea, ia ezinezko delako ustea gainditzen laguntzeko. Kanpaina hauetan euskaraz komunikatzeko egoerarik arruntenetan moldatzeko ikastunitateak landuko lirateke komunikabideetan; adibidez, tabernan: “bi zurito eta beltz bat. Zenbat da? Eskerrik asko.”

HELDUEN EUSKALDUNTZE ALFABETATZEAREN KUDEAKETA; PARADIGMA ALDAKETA

Etengabeko prestakuntza, eskaintza berriei erantzuteko prestatu beharra, kalitatea, eguneratzea, oso hitz ezagunak bihurtzen ari dira euskaltegie-tan. Zerbait mugitzen ari den seinale da hori nire ustez. Horren aurrean hona hemen etorkizunari begira zelan ikusten dudana kudeaketa alorrean paradigma aldaketa.

- Euskaltegien arteko lankidetzaz; sare moduan antolatu beharra dago. Izan ere, lehiakideak garela ahaztu gabe, komunean ditugun beharrak identifikatu behar ditugu eta horiei erantzuna emateko lankidetzaz bideak jorratu behar ditugu. Nabarmena da azken urteotan euskaltegiok elkarlanean egindako lana fruituak ematen ari dela, hor dago Kultura Sailarekin izandako negoziazioen emaitza ona. Dena dela, atzera begiratzeak ematen duen poza alde batera utzi gabe, ezin dugu ahaztu oraindik ere lan handia dagoela egiteko HEA guztiz normalizatutako arloa izatera hel dadin: baliabideak, formazioa, sustapena... etengabeko lana eta jarraipena eskatzen duten arloak dira, etorkizunean ere elkarlanean aritzea eskatuko dutenak.
- Erantzutetik planifikatuz; sarri askotan unean-unean datorrenari erantzun beharrean aurkitzen gara eta eskaintzari aurrea hartuzera ohitu beharko genuke. Epe ertain eta luzera begira planifikatzen ikasi behar dugu. Baina, hau guztia ez dago gure esku bakarrik. Izan ere, administrazioek Euskararen Normalizazioan zer asmo duten jakitea ezinbesteko da.
- Behin-behinekotasunetik espezializazioa; sektorea duintzera jo behar dugu. Giza baliabideen joan etorriarekin amaitu behar da. Behin euskaltegi batean lanean hasita, ibilbide profesionala bertan garatzeko bideak jarri behar dira. Horretarako lan baldintzak hobetu behar direla oso argi dago, baina horrekin batera formazioan, irakas-kuntzako materialetan, baliabide teknologikoetan eta beste arlo batzuetan asko inbertitu behar da. Azken finean, giza baliabideen asebetetasuna gora egiten duen neurrian lortuko dugu behin-behinekotasunetik behin-betikora pasatzera.
- Ikasle kopuruetatik, ikasle euskaldunduetara; emaitzetaz hitz egiten ari naiz, argi eta garbi. Euskaltegietatik igaro diren ikasleak milaka dira, horietatik askok EGA atera arte ibili dira euskaltegian, beste asko, erdi bidean geratu dira baina euskaraz bizitzeko adina ikasi dute. Beste askok, ordea, hasi bai baina gero bertan behera utzi dute ikas prozesua. Honetaz guztiaz hausnartu beharra daukagu. Ikas prozesua azkartu behar da. EGA ez da azken helburua eta tarteko mailak behar dira. Azken hiru urteetan, tarteko mailak egiaztatze bideak jarri dira, baina asko dago hobetzeko, mailak homologatzea adibidez.

Amaitzeko ordua da, gauza asko esan gabe geratu dira. Helduen Euskalduntzearen historia, gaur egungo argazkia eta etorkizunari begira dauden erronkak aipatu ditut. Seguru naiz, euskara ikasteko eta erabiltzeko aitzakiarik ez dagoela. Euskara ikasteko arrazoiak asko dira, bakoitzak bat izango du, baina zalantza izpirik gabe, euskara ikasi, erabili eta euskaldun izateak merezi du.■

Nabarmena da azken urteotan euskaltegiok elkarlanean egindako lana fruituak ematen ari dela, hor dago Kultura Sailarekin izandako negoziazioen emaitza ona. Dena dela, atzera begiratzeak ematen duen poza alde batera utzi gabe, ezin dugu ahaztu oraindik ere lan handia dagoela egiteko HEA guztiz normalizatutako arloa izatera hel dadin: baliabideak, formazioa, sustapena... etengabeko lana eta jarraipena eskatzen duten arloak dira, etorkizunean ere elkarlanean aritzea eskatuko dutenak.

*Euskaltegietatik igaro
diren ikasleak milaka
dira, horietatik askok
EGA atera arte ibili dira
euskaltegian, beste asko,
erdi bidean geratu dira
baina euskaraz bizitzeko
adina ikasi dute. Beste
askok, ordea, hasi bai
baina gero bertan behera
utzi dute ikas prozesua.
Honetaz guztiaz
hausnartu beharra
daukagu. Ikas prozesua
azkartu behar da. EGA ez
da azken helburua eta
tarteko mailak behar
dira. Azken hiru urteetan,
tarteko mailak
egiaztatzeko bideak jarri
dira, baina asko dago
hobetzeko, mailak
homologatzea adibidez.*

BIBLIOGRAFIA:

ELE 13. AEK, herri mugimendua, historia eta ekintzak. Eduardo Diaz. 1993.

OHARRAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulua honela dio:

- “Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza baita, Euskadiko hizkuntza ofiziala izango da, gaztelaniarekin batera, eta hiritar guztiek dute bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.
- Autonomi Erkidegoko erakunde komunek, Euskal Herriko aniztasun soziolinguistikoa kontuan harturik, bi hizkuntzen erabilera bermatu, haien izaera ofiziala arautu eta hura ikasteko behar diren neurri eta baliabideak eratu eta arautuko dituzte.”

2. EBPnren VI.2.1 atalak hauxe dio: “Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere.” Dokumentu beraren IV.3.11 atalean, euskararen indarguneak aztertzen direnean, besteak beste, ondokoak aipatzen dira: “Euskararen berreskurapenean, euskal irakaskuntzarekin batera, helduen euskalduntze-alfabetzea izan da ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena”. Aurreraxeago, zera dio: “..., eskaera handia da gizartean. Baita euskaltegiekiko oniritzia ere.”